



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Ezeziel Loiarde Santesteban.
Txomin Hualde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.
Naiara Arretxea Gorosterrazu
(Kontuhartzailea)

2025eko irailaren 29an, 19:30ean, ohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilkuran hasi aurretik, gaiordenean sartu ez den gai bat aurkeztu du Udalburuak: Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua sortu du, udal kide guztien artean politika publikoak modu koordinatu eta mankomunatuan garatzeko helburuarekin. Berdintasunaren arloko eskumenen delegatzioa eta malerrekako zerbitzu orokorren mankomunitatearekin hitzarmena onartzea beharrezkoa da lehenbailehen.

Udalburuak gaiaren premia aztertu du, bozkatzera deitu eta zinegotzi guztien oniritziarekin, gaia **gai ordenean sartzea erabaki da**.

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea ekainaren 6koa eta uztailaren 31koa.

***** Martxel Elizalde Elizalde.sartzen da*****

2. 2024KO KONTUEN IXTEA.

2024ko kontuen espedientea aztertu ostean, udalbatza Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, ahobatez hurrengoa **erabaki du**:

1.- Aldeko txostena ematea 2024ko kontuei.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3.- Erakustaldi publikoaren berri eman Udaletxeko iragarki-taulan.

3. AURREKONTU ALDAKETA 1/2025.

Kontuhartzaileak 1/2025 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			160.000,00€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-1522-622000 ERAIKIN PUBLIKOA BERRITZEA ETA GAITZEA.....160.000,00€

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 1/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

2.- 1/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4. AURREKONTU ALDAKETA 2/2025.

Kontuhartzaileak 2/2025 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-7508005 DIRU LAGUNTZA MENDI LANAK.....19.070,89€

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			11.060,94€

1-8701000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA
ERAGINDAKO FINANTZAKETA DUEN GASTURAKO.....		7.189,76€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-4121-69200 MENDI LANAK.....37.321,59 €

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 2/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

2.-2/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

5. AURREKONTU ALDAKETA 3/2025.

Kontuhartzaileak 3/2025 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-7508006 DIRULAGUNTZA INBERTSIOAK ERROTAN.....	10.000,00€
1-870000 DIRUZAINZAKO GERAUNA GASTU	
OROKORRETARAKO.....	2.000,00€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidaara bideratzea proposatzen da:

1-3332-62900 ERROTAKO BIDEAREN BIRGAITZEA.....	12.000,00€
--	------------

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 3/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

2.- 3/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

******NAIARA ARRETEXEA ATERATZEN DA******

6. PAM 2024, AURKIDI ETA IRAMENDI ALDERDIAN OIHAN ENKANTEA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udalburuak azaldu du, 2025eko uztailaren 31an hasierako onespina eman zitzaion Aurkidi eta Iramendi paraheetan oihan aprobetxamendua SERVICIOS FORESTALES DE DIOS,S.L.U enpresari esleitzea.

Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamendura bidali zen, egindako eskaintza ekonomikoaren balorazioa eskatuz, eta 2025eko irailaren 19an aldeko txostena bidali zuten.

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengo aho batez erabaki du:**

1. SERVICIOS FORESTALES DE DIOS,S.L.U enpresari behin betiko esleipena onartzea, 40.000,00 eurotan (BEZ Gabe).

2. Baso Kudeaketa Zerbitzura bidali mozteko lizentzia eskatuz.

3. Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

7. XEHETASUN AZTERLANA 4. POLIGONOKO 26. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udalburuak azaldu du aipaturiko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman ziola Zubietako Udalak 2025eko uztailaren 31eko osoko bilkuran; espedientea jendaurrean egon zen 2025eko abuztuaren 21ko 166. NAO-n, inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak **erabaki du**:

- 1.- 4. poligonoko 26. lurzatiaren xehetasun azterlana behin betiko onestea.**
- 2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea Xehetasun azterlanaren testuarekin batera.**
- 3.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.**

***** DEIALDIAN EZ DAGOEN PUNTUA SARTZEA ERABAKI DA*****

BERDINTASUNAREN ARLOKO ESKUMENEN DELEGATZIOA ETA MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA

2019ko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, 12. artikuluan xedatzen du toki entitateek euren eskumenak baliatzean berdintasunaren printzipioa txertatzeko betebeharra dutela.

1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.o) artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, udalei aitortzen die eskumen propioa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketetan, bai eta genero-indarkeriaren aurkakoetan ere.

Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua sortu du, udal kide guztien artean politika publikoak modu koordinatu eta mankomunitatean garatzeko helburuarekin.

Araudia betetzeko, baliabideak optimizatzeko eta kudeaketa tekniko egokia bermatzeko, egokitzen da Udal honek Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitateari delegatzea berdintasun-zerbitzua garatzeko eta kudeatzeko eskumena, dagokion lankidetzaren hitzarmen interadministratiboan xedatutako baldintzetan.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

ERABAKIA

- 1.- Onartzea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari delegatzea berdintasunaren arloko udal-eskumenak, lankidetza-hitzarmen interadministratiboan aurreikusitako baldintzetan.
- 2.- Onartzea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen eta Zubietako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen interadministratiboa, erabaki honen eranskin gisa jasotzen dena eta beraren parte osagarria dena.
- 3.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko eta haren exekuzioa eta garapena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak burutzeko.
- 4.- Erabaki hau jakinaraztea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari, onarpena eta hitzarmena sinatzea behar bezala gauzatzeko.

8. ESKAERAK.

8.1 Ines Gereka Zelaia andreak, Zubietako udalak PIL 2026-2028an aurkeztutako memoriak bidaltzeko eskaera egiten du.
Baita ere, udal plenoen deialdia eta zein gaiari buruz hitzegingo den Whaspapp bidez eta plenoen aktak bidaltzea eskatzen du.

6/1990 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Lokalari Buruzkoa ezartzen duen bezala, plenoko deialdiak bi egun lehenago bidali behar dira zinegotziei. Herriko tabloian eta Zubietako egoitza elektronikoaren iragarki taulan ere jartzen dira. Aktak web orrian jartzen dira.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- PIL 2026-2028 aurkeztutako lau memoriak bidali zaizkio.**
- 2.- Aktak iragarki taulan jarriko dira.**
- 3.- Osoko bilkuraren deialdia, legeak ezartzen duen bezala, tabloian eta egoitza elektroniko bidez zabalduko da.**
- 3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

8.2 Iñaki Sanchez Lafuente jaunak, "Malerreka Bizirik" taldearen izenean, Abbo Energy enpresak haizerrota jartzeko proiektuari buruzko informazio berria dagoen eta Zubietako udalak inguruko udalekin harremanetan dagoen galdetzen du.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Gaia eztatbaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Herritarrei bilera informatibo bati deituko dugu.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.3 Fermin Etxekolonea Urriza eta Lino Elizalde jaunek 515/2025 erregistro sarrera zenbakia duen eskaera egin zuten. Beraien eskaeran, Zubietako udalak Toki Inbertsioen Plana (PIL) edo beste dirulaguntzetan, zein proiektu aurkeztu duten galdetzen dute.

Gaia eztatbaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko irailaren 11an aurrez aurre egindako bilera Zubietako udalak zein proiektuak aurkeztu diren jakinarazi zitzaien.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.4 Beñat Etxekolonea Diez jaunak bilkuren aktak fisikoki ikusgai jartzea eta plazaren estaltzearen proiektuaren egoerari buruzko eskaera aurkeztu du.

Gaia eztatbaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Bilkuraren aktak paperean tabloian jarriko dira.

2.- Gaur egun dagoen udal taldeak, azkeneko hauteskundetan, plazaren proiektua aurkezteko aukera egotekotan aurkeztuko zuela esan zuen. 2025eko otsailean NAO argitaratu zen Toki Inbertsioen Plana 2026-2028 ikusirik eta aurretik memoria izanik, plazaren memoria aurkeztu zen. Aldeko ebazpena izatekotan, herrian galdeketa egingo da, behin betiko proiektua onartu aurretik.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.5 Pedro Santesteban Santesteban jaunak 520/2025 erregistro zenbakia duen eskaera egin zuen, bere baserriko bidea zementua botatzeko eskatuz.

Gaia eztatbaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Egindako eskaera kontutan izango da. Zubietan pista asko daude konpondu beharra direnak eta pista orokorrak lehentasuna dute. Baina Santesteban jaunak egindako eskaera kontutan izango da hurrengo dirulaguntza eskaeretan.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

8.6 Engracia Urriza Zubitur andreak 540/2025 erregistro zenbakia duen eskaera egin zuen, udalak bere baserrira (Txapado borda) joateko bidea konpontzeko eskatuz.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Egindako eskaera kontutan izango da. Zubietan pista asko daude konpondu beharra direnak eta pista orokorrak lehentasuna dute. Baina Urriza andreak egindako eskaera kontutan izango da hurrengo dirulaguntza eskaeretan.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

9. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (41/2025- 55/2025 ebazpenak). Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

10. Herriko gaiei buruzko informazioa.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Jose Maria Echeolonea Urriza, Juan Carlos Mindegua Mutuberria eta Inmaculada Gragirena---Rally Malerreka azaroaren 22an egingo dela--- Zubietak ostatuko DS andrearen idatzia 15 eguneko oporrak hartuko dituela esanez--- 416E/2025 ebazpena, irailaren 19koa, Baso Zerbitzuko Zuzendariarena 4.poligonoko 1032.lurzatian lanak egiteko baimena emanez---53E/2025ebazpena irailaren 22koa,Euskarabideak sustatzen dituen 2025eko dirulaguntza Zubietako udalari 1.358,08---Nafar Gobernuako Abeltzaintza zerbitzutik ebazpena Ezequiel Baleztena Santesteban behiak bajan emanez---Ingurumen Osasunaren Atalatik uraren egoerako txostena--- Alkateak izena eman du turismo jasangarria proiektuan bederatzi tailer egingo dira-

11. Galde-eskeak.

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 21:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

